

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN (URA) FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den martxoaren 29an Uraren Euskal Agentziaren (URA) kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldiari buruzkoa.

2016ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz iritziaren edukiak mugaketa izan duen Ibilgetu Materialeko kontu-sail jakin batzuetan.

Gainera, URAk zuzentasunez bete duela 2016ko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautu duen lege arautegia ondorioztatu du, nahiz ez den modu egokian justifikatu 2 kontratu publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta esleitu izana.